



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

UDALBATZAK 2017KO AZAROAREN 30EAN EGINIKO OHIKO OSOKO BILKURA

BERTARATUAK:

Mikel Agirrezabala Ezkurdia
Itziar Arratibel Imaz
Jesus Peñagarikano Labaka
Jon Mikel Iglesias Otegui
Irati Ozaita Azpiroz
Arkaitz Fraile Quijera
Maria Iciar Jauregui Huarte
Eleuterio Sanchez Garcia
Maria Cristina Goya Amiama

BITARTEKO IDAZKARI :

Naia Ruiz de Eguino Garcia Echave

Ibarran, **bi mila eta hamazazpiko abenduaren hogeita hamarrean** arratsaldeko zazpiak zirenean udalbatzak bilera egin zuen udaletxeko bilera-aretoan eta alboan adierazitako jaun-andreak elkartu ziren ohiko osoko bilkura egiteko asmoz, horretarako deituta baitzeuden. Egintzaren buru, Mikel Agirrezabala Ezkurdia alkate jauna izan zen, eta bitarteko idazkari lanetan Naia Ruiz de Eguino Garcia Echave

Lehendakariak egintza ireki dela adierazi ondoren, eguneko gai-zerrendako gaiak aztertzeari ekin zaio:

- 1.- 2017ko irailaren 28an egindako Ohiko Udalbatzaren bilkuraren aktaren onarpena
- 2.- 2017ko urriaren 30ean egindako Ez-Ohiko Udalbatzaren bilkuraren aktaren onarpena
- 3.- 2017ko azaroaren 16an egindako Ez-Ohiko Udalbatzaren bilkuraren aktaren onarpena
- 4.- 355/2017tik 454/2017ra Alkate Dekretuak jakinaraztea
- 5.- 3/2017 Kreditu Aldaketaren espedientea: modalitatea kreditu gehigarriak
- 6.- Udal plantila organikoaren aldaketaren onarpena
- 7.- EH Bikduk eta EAJ-PNVk Udalbatzari aurkezten dioten adierazpen instituzionala: Euskararen Nazioarteko egunaren ingurukoa
- 8.- Galdera eta eskaerak

2017/11/30



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

LEHENA:

1. 2017KO IRAILAREN 28AN EGINDAKO OHIKO UDALBATZA BILKURAREN AKTAREN ONARPENA

Irakurri da 2017ko irailaren 28ko ohiko bilkurako akta.

Udalbatzak, aho batez, 9 aldeko botorekin (6 BILDU eta 3 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

BAKARRA: Onartzea, 2017ko irailaren 28ko ohiko bilkurako akta

BIGARRENA:

2. 2017KO URRIAREN 30EAN EGINDAKO EZOHIKO UDALBATZA BILKURAREN AKTAREN ONARPENA

Irakurri da 2017ko urriaren 30eko ohiko bilkurako akta.

Udalbatzak, aho batez, 9 aldeko botorekin (6 BILDU eta 3 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

BAKARRA: Onartzea, 2017ko urriaren 30eko ohiko bilkurako akta

HIRUGARRENA

3. 2017KO AZAROAREN 16AN EGINDAKO EZOHIKO UDALBATZA BILKURAREN AKTAREN ONARPENA

Irakurri da 2017ko azaroaren 16ko ohiko bilkurako akta.

2017/11/30



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Udalbatzak, aho batez, 9 aldeko botorekin (6 BILDU eta 3 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

BAKARRA: Onartzea, 2017ko azaroaren 16ko ohiko bilkurako akta

LAUGARRENA

4. 355/2017TIK 454/2017RA ALKATE DEKRETUAK JAKINARAZTEA

Alkateak azken ohiko bilkuratik, 2017ko irailaren 28tik aurrera onarturiko dekretuen berri eman du, hain zuzen 355/2017tik 454/2017ra.

Jakinaren gainean gelditu da Udalbatza

BOSGARRENA

5. 3/2017 KREDITU ALDAKETAREN ESPEDIENTEA: MODALITATEA KREDITU GEHIGARRIAK

3/2017 kreditu aldatetaren espedientearen berri eman da, kreditu gehigarrien bidez eta udal honen aurrekontuari eragiten diona.

Kontuhartzaile akzidentalak egindako txostena irakurri da. Horren arabera, espedienteak dagokion araudia betetzen du, zehazki, Gipuzkoako Lurralde Historikoko toki erakundeen Aurrekontuari buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 27 artikuluan ezarritako eskakizun eta izapideak.

Kontuan izanda Gipuzkoako Tokiko Erakundeetako Zergei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 31 eta 34.3 art. eta Aurrekontua gauzatzeko Udal Araudiaren 4 atalaren 5.b art.

Ikusi da Ogasun eta Kontuen batzordearen 2017ko azaroaren 27ko irizpena, Udalbatzak 9 aldeko botorekin (6 BILDU eta 3 EAJ-PNV)

ERABAKITZEN DU

2017/11/30

3



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

LEHENA: Onartzea 3/2017 Kreditu aldaketa espedientea, kreditu gehigarrien bidez, eta udal honi dagokion aurrekontuari dagokiona. Ondoren zehazten da atalka:

KREDITU GEHIKUNTZA

ATALA	IZENDAPENA	GEHIKUNTZA
2.-	Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea	177.033,13
4.-	Transferentzi arruntak	7.100,00
6.-	Benetako inbertsioak	123.600,00
GUZTIRA GEHIKUNTZAK.....		308.033,13 €

FINANTZATZEN DITUZTEN BALIABIDEAK

A) DIRUZAINZTA GERAKINA

ATALAK	IZENDAPENA	Zenbatekoa
8.-	Diruzaintza gerakina	308.033,13
GUZTIRA		308.033,13 €

2017/11/30



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

BIGARRENA: Espedientea jendurrean jartzea, hamabost eguneko epean erreklamazioak aurkezteko. Erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, erabaki hau behin betiko bihurtuko da, eta espediente honi Aurrekontu orokorrari ematen zaion izapidetzea emango zaio.

SEIGARRENA

6. UDAL PLANTILLA ORGANIKOAREN ALDAKETAREN ONARPENA

Udalbatzak 2017ko maiatzaren 25ean eginiko bilkuran erabaki zuen besteak beste, Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari eskatzea Udal honen Diruzaintzako lanpostua, Toki Administrazioko gaikuntza nazionalako funtzionario gisa sailkatzea.

2017ko abuztuaren 21ean jaso zen Toki Administrazioekiko Harremanetarako zuzendariaren 2017ko abuztuaren 1eko ebazpena. Honen bidez, Ibarra Udaleko Kontuhartzailatza-Diruzaintza azpieskalako gaikuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioentzat gordetako gisa sailkatzen du lanpostu hau.

Hau horrela, Ibarra Udalak lanpostu hori bere lanpostu zerrendan gehitu behar du lanpostua bete baino lehen.

Ikusirik 2017ko urriaren 25eko 2017TXJU0005 Idazkariaren txosten juridikoa.

Kontuan izanda uztailaren 29ko 1732/1994 Legegintzako Errege Dekretua , gaikuntza nazionalako izaera duten tokiko administrazioko funtzionarioei gordetako lanpostuak hornitzeari buruzkoa, eta irailaren 18ko 1174/1987 Errege Dekretua, gaikuntza nazionalako izaera duten tokiko administrazioko funtzionarioen Araubide Juridikoa arautzen duena.

Kontuan izanda lanpostu-zerrendek aurrekontuetan diruz hornitutako lanpostu guztiak hartu behar dituztela, eta Udal plantilla organikoan sortu den Diruzaina plaza betetzeko ezaugarriak eta baldintzak bertan azaldu behar direla.

Kontuan izanik Toki Araubidearen Oinarrien legearen 90 artikulua ezartzen duela udalek beren erakundean dauden lanpostuen zerrenda osatuko dutela, funtzio publikoari buruzko oinarriko legedian aurreikusitakoari jarraiki.

Kontuan izanik Toki Araubidearen Testu Bateginaren 126.4 artikulua ezartzen duela lanpostu zerrendak, funtzio publikoaren oinarriko legedian aurreikusitako edukia dutela, Toki Araubidearen Oinarrien Legearen 90.2 artikulua araberako egingo direla.

Kontuan izanda Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren legearen Testu Bategina, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege dekretuak onartua.

2017/11/30



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Kontuan izanik Euskal Administrazioaren funtzio publikoaren arloan aplikatzekoa den Funtzio Publikoaren Legeak, bere 13. artikulutik 18.era, honakoa ezartzen duela:

* Euskal Administrazio Publikoek bere barne-egiturak arrazoibideratu eta eratu, langilego-beharrak finkatu, lanpostuetan jarduteko eskatutako baldintzak zehaztu eta horietako bakoitza sailkatzeko baliabidea dituzte lanpostu-zerrendak

* Lanpostu-zerrendek aurrekontuetan diruz hornitutako lanpostu guztiak hartu beharko dituzte, funtzionarioentzat, lan-itunpeko langile finkoentzat eta behin-behingoentzat gordetakoak bereiziz.

* Lanpostu-zerrendek honako hauek adieraziko dituzte nahitaez horietako bakoitzeko:

- izena.
- Atxikita dagoeneko Saila
- dedikazio-erregimena
- hori betetzeko eskatutako baldintzak, horien artean derrigorrez hizkuntz eskakizuna eta horren derrigortasun-data
- bakoitza zein Talde, Kidego edo Eskala edo lan-kategoriatan sartuta dagoen.
-

Funtzionarioentzat gordetako lanpostuetan, honako hauek ere adieraziko dira:

- Lanpostuak betetzeko sistema.
- Berariazko osagarria

*lanpostuen zerrendak, eta horietan gerta litezkeen aldaketak, Lurralde Historikoko Aldizkarian argitaratuko dira.

*Aurrekontuetan oharmandakoei egokituko zaizkie lanpostu zerrendak, eta ez dute jasoko dagokion ekitaldirako aurrekontu zerrendetan oharmandako kredituek erantzun ezineko diru hornidura duen lanposturik.

2017ko azaroaren 14an buruturiko Pertsonal Batzordearen irizpena kontutan izanik Udalbatzak, aho-batez, 9 aldeko botorekin (6 BILDU eta 3 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENA: Hasierako onarpena ematea udal plantilla organikoaren aldaketari, ondorengo plaza sortzeko:

2017/11/30



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Izena	Lanpostu kopurua	Taldea	Egoera	Oharrak
1.-NAZIO GAIKUNTZA DUTEN FUNTZIONARIOAK				
Kontuhartzaile - Diruzaintza Azpieskala				
Diruzaina	1	A1	H	

BIGARRENA: Hasierako onarpena ematea udal lanpostuen zerrendaren aldaketari, ondorengo lanpostua sortzeko:

Diruzaina

- * Lanpostu kopurua: 1
- * Lanpostua betetzeko era: Lehiaketa
- * Maila osagarria: 25
- * Berariazko osagarria: 1050 puntu
- * Lanjarduna: % 100
- * Mendekotasuna: Kontuhartzailletza
- * Eskala: Nazio-mailako gaikuntza
- * Azpieskala: Kontuhartzailletza-Diruzaintza
- * kategoria: sarrera
- * Taldea: A
- * Azpitaldea: A1
- * Hizkuntza eskakizuna: 4
- * Derrigortasun-data: 2017-11-30
- * Eskatutako titulazioa: Zuzenbide, Enpresen administrazio eta zuzendaritza, Ekonomia

HIRUGARRENA: Plantilla organikoaren eta Lanpostuen zerrendaren aldaketak jendaurreko tramitean jartzea, hamabost eguneko epean, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita. Epe horretan erreklamaziorik aurkezten ez bada, hasieran onartutakoa behin betiko onartutzat emango da eta, beraz, Udalbatzak ez du horren gainean erabaki berri bat hartu beharrik izango.

ZAZPIGARRENA

2017/11/30



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

7. EH BILDUK ETA EAJ-PNV-K UDALBATZARI AURKEZTEN DIOTEN ADIERAZPEN INSTITUZIONALA EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNAREN INGURUAN

Abenduak 3, igandea, Euskararen Nazioarteko Eguna. Eusko Ikaskuntzak 1949. urtean Euskararen Nazioarteko Eguna abenduaren 3an ospatzea erabaki zuen. Ia hirurogei urte igaro arren, oraindik ere bere horretan dirau Euskal Herriko hizkuntza berreskuratzeko premia larriak.

Egia da, bistakoa baita, euskaltzale eta ekintzaile askoren ahaleginak ez direla alferrikakoak izan eta euskara orain dela 50 urte baino hobeto dagoela; askoz hobeto, baina ez nahikoa. Egia da, era berean, azken urteotan lortu dugula Euskal Herriko lurralde guztietan urrats esanguratsuak aurrera egitea. Egun, inoiz ez bezala, euskaldunok berariazko erakundeak dauzkagu, alde batetik, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, bestetik, Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan, eta azkenik, Nafarroa Garaian. Baina ez daukagu hizkuntza politika bateraturik.

Badakigu, nola ez, edozein hizkuntza gutxituren behineneko arazoa, transmisiotik harago, erabilera dela, alegia, hizkuntza biziberritzea berau erabiltzea dela. Baina xedea euskararen erabilera bada ere, ez da areagotuko oinarrian ez badu hiztun-elkarte zabala, sendoa, trinkoa eta konprometitua.

Datorren urtea, 2018a, urte berezia da. Euskaltzaindiak eta Eusko Ikaskuntzak 100 urte betetzen dituzte eta 1968ko Arantzazuko Bileratik hona 50 urte igaro dira. Euskara Batuaren 50. urteurrena, alegia. Legebiltzarrak berariazko garrantzia eman nahi dio hizkuntzaren estandarizazioari eta Euskara Batuak normalizazioari dakarkiona nabarmendu. Hezkuntzan eta unibertsitatean, literaturan eta, oro har, kulturean, hedabideetan eta gizarte zerbitzuetan lortu duguna ez zen posible izango hizkuntza eredu estandarrik izan ez bagenu.

Batasuna. Hori da giltzarria: batasuna. Euskara Batua izan da euskarri sendoenetakoa euskaren normalizaziorako eta orube egokiena euskararen hiztun-elkartearen batasuna erabilera eraikitzeko. Sakondu eta zabaldu behar dugu batasun hori. Aspaldiko partez, hizkuntza politika Euskal Herriko erakunde publikoen eskumena da. Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan, Euskal Hirigune Elkargoarena; Nafarroa Garaian Foru Gobernuarena, eta Araban, Bizkaian eta



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Gipuzkoan, Jaurlaritzarena. Beraz, eskumenak baditugu; orain, kudeatu eta, ahal dela, bateratu egin behar ditugu.

Batasunaren aldarria zabaldu nahi dugu Legebiltzarretik, Euskara Batua sendotzeko eta hedatzeko; doakotasuna, euskara edonork ikas dezan; hizkuntza politika bateratua Euskal Herri osoan; eta euskararen erabilera sustatzeko ekimenak.

Horregatik guztiarengatik, Ibarra Udalak Euskararen Nazioarteko Egunari begira (abenduak 3) ondorengo adierazpena onartu eta zabaldu nahi du:

Euskararen hedapena eta erabilera eraginkorra lortzeko ezinbestekoa da hizkuntza eredu estandar egokia, gizarteratua eta onartua izatea. 1968. urteko Arantzazuko Euskaltzaindiaren Bilkuran abiatutako Euskara Batuaren prozesua izan da, dudarik gabe, euskararen normalizazioa izan ahal izateko euskarririk sendoena eta, aldi berean, euskaldunen arteko batasunaren seinalerik argiena.

Horiek horrela, Ibarra Udalak bere atxikimendua adierazi nahi die euskaldunen arteko batasunari eta euskararen erabilera sustatzeko ekimenei. Era berean, datorren urtean euskararen erabilera areagotzeko parte hartzeko konpromisoa gure egiten dugu.

Udalbatzak, aho-batez, 9 aldeko botorekin (6 BILDU eta 3 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENENGOA: Onartzea EH Bilduk eta EAJak aurkezturiko adierazpen instituzionala Euskararen Nazioarteko egunaren ingurukoa.

ZORTZIGARRENA

8. GALDERA ETA ERREGUAK

2017/11/30



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Eta bestelako aztergairik ez dagoenez, bilera amaituzat ematen da goiburuan adierazitako egunaren arratsaldeko zazpiak eta hamazazpi direnean. Nik, behin-behineko idazkari naizen honek, akta hau egiten dut bertan jasotakoaren berri emateko.

2017/11/30

10